

Euskal Herriko langile publikoon lan baldintzak bertan arautu!

Aste hauetan Hego Euskal Herriko langile publikoak Madrilgo negoziazio kolektiboaren antzerkiari begira jarri gaituzte. Azken urteotan geure lan baldintzak dekretuz edo legez han inposatzea modan jarri da aitzakia bat edo beste dela medio. Hain xelebrea da egoera, ezen Urkulluk dagoeneko betebehartzat hartu, eta Txibitek ezartzeko asmo eza adierazi baitu. Langileok medioetatik jasotzen ari garen informazioak osorik ez izanagatik, **murrizketa gehiago datozela ohartarazten dute.**

Soldatak murrizten jarraitzen dute

Zor zaiguna argi zehaztu eta itzuli baino, beste behin formula nahasgarri batzuk aurkeztu dituzte langileok eztabaida marko antzuetara eramateko. **2010ean kendutako %5 hartan galtzen jarraitu duen eros-ahalmena berreskuratu ez, eta galtzen jarraitzea adostu dute.** Oso argi dago Madrilen adostu duten igoerarekin ez dela aurtengo KPlaren galera berreskuratuko, ez aurtengo igoerarekin, ez eta hurrengo urtekoekin ere. Are okerrago, datozen urteetako igoerak langileon eskuetatik kanpoko faktoreetara zeharo baldintzatuta egongo dira, beti ere KPlaren azpitik geldituz (gogoratu aurtengoa %10aren bueltan dabilela).

Urriak 14
octubre

MOBILIZAZIOA

Iruñea: 11:00 Nafar Gobernua
Gasteiz: 11:30 Plaza Berrian
Donostia: 11:30 Gipuzkoa Plazan
Bilbo: 11:30 Eusko Jauriaritzan (Gran)

- 1 Enplegu publiko duina
- 2 Eros-ahalmena bermatu
- 3 Bertan erabaki

Akordio arrotzak errealitate arrotz baterako

35 orduko lanastea, aldi baterako ezintasunagatiko ordainketa osoa eta aurretiko erretiroagatiko ordainsariak bezalako gainerako akordioak baliagarriak eta garrantzitsuak izan daitezke estatuko administrazioetan. Baina Hego Euskal Herriko errealitatean oso eragin mugatua izango dute: aurre-erretiroa soilik langile finkoentzat izatea, erretiro primak kendu izana, edota irakaskuntzako lan legepeko hainbat eremuk 35 ordu ez izatea, errelebu kontratuak... Adierazgarri ezin argiagoa da hain zuzen ere negoziazio kolektiboa tokian tokiko errealitatera lotuta egon behar dela. **Euskal Herriko zerbitzu publiko euskaldunak eta bere langileon baldintzak bertan negoziatu eta adostu behar dira ezinbestez.**

Enplegu publikoa sortu eta egonkortu

Onartezina da «historiako gobernurik ezkertiarrenak» delako elkarrizketa sozialaren bidez «klase sindikatuekin» enplegu publikoa galtzen jarraitzea ahalbideratzen duen akordio bat sinatzea. Dagoen erretiro maila handiarekin birjartze tasak kentzeari buruzko aipamenik ez, eta ondorioz **enplegu eta zerbitzu publikoak husten jarraituko dute.**

Europak behin-behinekotasun tasa jaisteko agindu zuen, eta ikusten ari garen dekretu txapuzeroen bitartez etxeko lanak egin dituztela esango dute, eta horrekin konformatuko dira Madrilan, Iruñean eta Gasteizen. Borondate eza baino, **prekariatatea eta enplegu suntsiketa betikotzeko benetako borondatea antzematen da.**

Pribatizazioek aurrera darraite

Enplegu publikoaren suntsiketak zerbitzu publikoak enpresa pribatuek eskuratzea suposatzen du. Estrategia hori betikotzeaz gain, ez da inolako neurririk aurreikusten zerbitzuak publikatzeko, hain zuzen inoiz baino beharrezkoagoa denean. Hornidurez (ura, argia...) eta azpikontratez gain, zaintza sektorea ia osorik dago pribatizatuta, zerbitzuaren eta lan baldintzen kaltetan eta gutxi batzuen mesedetan. **Pribatizatzen jarraitzeko borondateak jarraitzen du.**

LAB urriaren 14an mobilizazen hasiko da

Sektore publikoaren Negoziazio Kolektiboa ukatuta dago Euskal Herrian. Madrilgo erabaki zentralistagatik, eta hemengo agintariak erosoago daudelako gainera kendu ezker. Madrilak ez du Euskal Herriko errealitatea errespetatzen, eta Gasteizko eta Iruñeko gobernuek ere ez dituzte errespetatzen bertako gehiengo sindikalak, langileak alegia. Hori da LABek exijitzen diena: **bertako negoziazio kolektiboaren eskubidea errespetatuz, inposizioei uko eginez eta akordio propioak bermatuz, bere langile publikoen lan baldintzak negoziatzeko borondate irmoa euskal erakundeei.** Horretarako mobilizatzen hasiko gara urriaren 14tik aurrera, eta dei egiten diegu langileei borroka honekin bat egiteko.



Eusko Jaurlaritza, Nafar Gobernua, aldundiak, udalak, enpresa publikoak...

BERTAN NEGOZIATU!

¡Hay que regular en Euskal herria las condiciones de trabajo de sus trabajadoras y trabajadores!

Estas semanas a las trabajadoras y trabajadores de Hego Euskal Herria nos han puesto mirando al teatro de negociación colectiva en Madrid. En los últimos años por una u otra excusa se ha puesto de moda que nuestras condiciones de trabajo se impongan allí vía decreto o mediante ley. La situación es tan extraña que Urkullu ha considerado el acuerdo como obligatorio y Chivite ha manifestado su intención de no adoptarlo. A pesar de que las informaciones que recibimos de los medios no están completas, **ya advierten de que vienen más recortes.**

Se siguen reduciendo los salarios

Más que definir y devolver lo que se nos debe con claridad, una vez más han presentado unas fórmulas confusas para llevarnos a las y los trabajadores a discusiones en marcos estériles. **No recuperamos el poder adquisitivo que se ha venido perdiendo desde aquel 5% recortado en 2010 y han acordado que sigamos perdiéndolo.** Está muy claro que con la subida suscrita en Madrid no se recuperará la pérdida del IPC de este año, ni con la subida de este año ni con las de los siguientes. Peor aún, las subidas de los próximos años estarán muy condicionadas a factores ajenos al personal, que quedarán siempre por debajo del IPC (recordemos que este año anda en torno al 10%).



Acuerdos ajenos para una realidad ajena

El resto de acuerdos como la semana laboral de 35 horas, el pago total por incapacidad temporal y las retribuciones por prejubilación pueden ser útiles e importantes en las administraciones estatales. Pero en la realidad de Hego Euskal Herria tendrán un impacto muy limitado: que la prejubilación sea sólo para personal fijo, que se hayan eliminado las primas por jubilación, o que en varios ámbitos de laborales de enseñanza no tengan las 35 horas... Un exponente inequívoco precisamente de que la negociación colectiva debe ir acorde a la realidad de cada lugar. **Se deben negociar y acordar aquí los servicios públicos euskaldunes que necesita Euskal Herria así como las condiciones de su personal.**

Creación y estabilización de empleo público

Es inaceptable que «el gobierno más de izquierdas de la historia» firmen un acuerdo con los «sindicatos de clase» que permite seguir perdiendo empleo público a través del diálogo social. Con el elevado nivel de jubilación existente, ni una referencia a la supresión de las tasas de reposición, y en consecuencia **seguirán destruyendo empleo y servicios públicos.**

Europa ordenó rebajar la tasa de temporalidad, y con los decretos chapuceros que estamos viendo dirán que ya han hecho los deberes y se quedarán conformes en Madrid, en Iruñea y en Gasteiz. **Más que falta de voluntad, se ve una clara voluntad de perpetuar la precariedad y la destrucción de empleo.**

Continúan las privatizaciones

La destrucción de empleo público supone la cesión de los servicios públicos a empresas privadas. Además de perpetuar esta estrategia, no se prevé ninguna medida para la publicación de servicios precisamente cuando es más necesaria que nunca. Además de los suministros (agua, luz...) y las subcontratas, el sector de los cuidados está prácticamente privatizado en su totalidad en detrimento del servicio y de las condiciones laborales y en beneficio de unos pocos. **Se mantiene la voluntad de seguir privatizando.**

LAB se movilizará el 14 de octubre

La Negociación Colectiva del sector público está anulada en Euskal Herria tanto por la decisión centralista de Madrid, como porque nuestros gobernantes están más cómodos si se la quitan de encima. Madrid no respeta la realidad de Euskal Herria y los gobiernos de Gasteiz y de Iruña tampoco respetan a sus mayorías sindicales, a las y los trabajadores. Eso es lo que LAB les exige: **respeto al derecho de negociación colectiva aquí, renunciando a imposiciones y garantizando los acuerdos propios, una voluntad firme a las instituciones vascas de negociar las condiciones laborales de sus empleados públicos.** Para ello comenzaremos a movilizarnos a partir del 14 de octubre y hacemos un llamamiento a las trabajadoras y trabajadores para que se sumen a esta lucha.



G. Vasco, G. de Navarra, diputaciones, ayuntamientos, empresas públicas...

¡NEGOCIAMOS AQUÍ!

